



DEBAKO UDALA

## **ABERRI EGUNA 2020**

### **ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Igandean ospatuko dugun aurtengo Aberri Eguna egoera oso berezian datorkigu, konfinamendu betean aurkitzen da euskal jendartea eta honez gero Euskal Herriaren luze zabalean bere arrastorik gordinena ezagutzeko parada eduki dugu gaitz hau bitarteko zendu diren mila inguru herritarrengan eta gaitzak jota dauden milaka horiengan . Mundu mailako krisi humanitario honek, sanitarioak diren ondorioez gain alor ezberdinetan izango dituenak aurre ikusezinak zaizkigu, edonola ere, aurrerantzean gure bizimodu eta ohituretan eragingo dituen aldaketek, batik bat politika alorrean orain arteko giteko moduetan ere aldaketak eragitea espero dugu.

Ama lurraren jasangarritasuna eta gizaki ororen bizitza duina eta zoriontasuna ere mundu mailako lehenetsun bilakatu behar honen baitan ulertzen dugu gure aberriak hartu behar duen itxura. Euskal Herria munduak zazpi lurralde hauetan hartzen duen izena da eta inoiz baino beharrezkoagoa Euskal Herriaren aitortza defendatzen dugunon aldetik oraindik aitortu gabeko herri txiki honek munduan jokatu duen papera zein izan behar den hausnartzea; nazioa aitortzea ez da soilik esparru politikoan gauzatu beharreko helburua, nazio izaera gero eta gehiago lotzen da komunitate garapenarekin eta honen jasangarritasunarekin, auto-eraketa eta dinamika sozial eraldatzaileen arteko lankidetzarekin, nortasuna eta aniztasuna bateratzearekin. Eskubide oinarrizkoen bermea, pertsonen arteko berdintasuna eta elkarrenganako errespetua sustatzen dituen komunitatea da nazio eraikuntzaren oinarria. Eskubide oinarrizkoen bermea, pertsonen arteko berdintasuna eta elkarrenganako errespetua sustatzen dituen komunitatea aldarrikatu nahi dugu 2020ko Aberri Eguna berezi honetan.

Erabaki guneak zenbat eta erabakiak gauzatu beharko diren lurraldeetatik hurbilago egon orduan eta eraginkortasun handiagoz erantzuten zaie egoera zailei. Zer izan behar garen erabaki nahi dugun bezala, gure aldameneko herrialdeekin izan beharreko harremanak erabaki nahi dugun bezala, krisi honetatik nola atera eta utziko dituen ondorio lazarriari erantzuteko ahalmen politikoa ere aldarrikatzen dugu. Bat egiten dugu herri honen sen demokratikoarekin.

Elkarlanean aritzeko garaia da, batera, auzolanean aritzeko garaia. Pasarte ilun hau atzean utzi eta gure herriarentzat eta herritarrentzat etorkizun hobe bat xede lanean hasteko prestutasun osoa gordetzen dugu. Horregatik, Aberri Eguna hau egoerak eskaintzen dituen aukera urriak baliatuz,

### **Debako Udalak, EH Bildu eta EAJ-PNV alderdien babesarekin:**

I.- Adierazten du doluminak helarazten dizkiela senitartean edo lagunartean galera pertsonalak izan dituzten herritarrei.

II.- Eskertza mezua helarazten die osasun eta zaintza arloko langileei eta egoera honetan beren onena ematen dabiltzan herritar guztiei.

III.- Udaletxean ikurrina jarriko du masta erdian Aberri Egunean Udaletxeko balkoian.

### **Eta dei egiten die herritarrei**

I.- Eguerdiko 12:30ean minutu bateko isiluneaz dolua parteka dezaten krisi honetan beren hurbilekoak galdu dituzten eta nahi bezala agurtu ezin izan diren ehunka familiekin.

II.- Ikurrinak jarri dezaten etxeetako balkoietan.

III.- Eta beste zenbait eragilek Aberri Egunerako deitutako ekimenetan parte hartzera.



Deban, 2020ko apirilaren 12an